

IKASLEEN TXOKOA 103. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 3-4

Egileak:*Añes Santamaria Santos, Unai Muñoz Zabaleta eta
Irene Landazuri Peñagarikano*

Sophie-Ren Iraultza

1789. urtea zen, Frantzian. Egoera oso ezegonkorra zen, bai politikaren aldetik eta baita ekonomiaren aldetik ere.

Herritarrak nazkatuta zeuden, Luis XVI.ak zergak igo zizkielako berriz ere. Gainera herri xeheak boto bakoitza indibiduala izatea eskatu berri zuen, eta ez estamentuen arabera, ordura arte bezala. Baina nola ez, Luis XVI.ak ez zien kasu handiegirik egin.

Sophie familiarekin dago etxean. Etxea oso txikia da, iluna, zikina... Normalitatearen barruan. Sophie-k eskerrak ematen ditu etxea edukitzeagatik; izan ere, oso familia txiro baten parte da, gizartearen gehiengo bezala, eta etxea edukitzea mirari hutsa da eta Sophie-k oso ondo jakin du betidanik mirari hori apreziatzen. Ezagutzen ditu etxerik ez duten bere adineko neska-mutilak. Etxean lau dira: Sophie, 10 urte betetzekotan dagoena, Philippe, Sophiren 6 urteko anaia, Andre aita eta Françoise, ama.

Sophie-k urre koloreko ilea du, oso luzea, itsasoaren koloreko begi urdin ederrak eta jendeak aingeruarenarekin alderatzen duen aurpegi zurbila.

Sophie-k hamar urte bakarrik eduki arren, konsziente da zerbait gaizki dabilela. Jendea haserre eta urduri nabaritzen baitu kalean. Gurasoak ere arraro dardela iruditzen zaio, politikaz besterik ez dute hitz egiten eta.

Uztailaren 12a da, gaur zerbait gertatu da, Sophie-k ez du oso ondo ulertzen zer gertatzen den. Gurasoei galdetu die eta hauek erantzun diote Jacques Necker delako bat kaleratu dutela eta hori herriaren kontrako akzio bat zela, etab. Sophie-ri izena ezaguna egin zaio eta gogoratu da ekonomia ministroa zela, edo horrelako zerbait. Arratsaldean Blanc familia osoa Palais Royal-eko lorategietara joan da. Bertara iritsi direnean, Sophie harrituta geratu da, ez da inoiz bertan egon.

Lorategia izugarri ederra iruditu zaio, gainera bertan dagoen jendetza guztiak harrigarriagoa egiten du, Sophie-k ez du inoiz horrenbeste jende ikusi elkarrekin bere bizitza laburrean. Bertaratutako guztiak jantzi beltzak dituzte soinean, bai eta banderak, obsidianaren kolorekoak hauek ere. Manifestazioa hileta prozesio bat bezalakoa izan da, milaka pertsona beltzez jantzita, beltz koloreko banderak astintzen eta Frantziako herri xeheak esperantza jarria duen ministro kalera-

tuaren bustoa, errezel beltz batez estalia, airean eramaten.

Hiria gurutzatu duen prozesio moduko horretan dauden bitartean Sophie-k belarria jarri du ondokoen hizketaldiak entzuten saiatzeko eta askatasuna, herri-tar, nazio, hirugarren estatua... bezalako hitzak entzun ditu.

– Ama, zergatik esaten dituzte hitz horiek?– galdetu dio Sophie-k jakin-min handiarekin.

– Zerbait gertatzen ari delako, Sophie.

– Zerbait ona edo txarra?

– Ikusiko dugu, pazientzia.

Baina, espero dut, noski, zerbait hori ona izatea. Oso ona– erantzun dio Françoise-k, hala gertatzeko errezatzen duen bitartean.

Blanc familia etxeruntz dihoan bitartean bi gizon ikusi dituzte hitz egiten. Nola ez, Sophie-k belarria jarri du, beti bezain kuxkuxera.

– Entzun dut, Pierre, pribilegiatu zikin horiek ura pozointzen ari zaizkigula!– hasi da gizonetako bat aztoraturik-. Eta, gainera janari-hornidurak konfiskatuko dizkigutela herria gosez hiltzeko! Lotsagarria da!

– Hori bakarrik ez Antoine, hiltzaile profesionalak eta bidelapurak kontratatu dituzte, beldurra sartzeko eta behar bada hiltzeko!– ihardetsi dio besteak.

Andre Sophie entzuten ari dela konturatu da.

– Lasai Sophie, ez da egia, jendeak horrelako gauzak asmatu egiten ditu.

Etxera iritsi direnean, Andre eta Françoise eztabaidan hasi dira. Ez entzuteko, Sophie-k Philippe hartu eta beste gela batera eramane du, han abesten hasi dira. Abesteak balio du, Philippe pozik dago eta ez da gurasoen eztabaida entzuten ari. Baina, Sophie bai.


– Bihar Saint-Lazareko kartzelara joango dira bertako presoak askatzeko intentzioarekin.

– Ez duzu joateko asmorik izango ezta, Andre? Alaba bat eta seme bat dituzu– gogoratu dio emazteak.

– Bale ongi da, ez naiz joango.

Hurrengo eguna, uztailak 13a egun mugitua izan da. Hainbat gatazka izan dira hiri guztian zehar, baina garrantzitsuena herritar batzuek Saint-Lazareko kartzela hartu dutela izan da.

Gaur ez da umerik atera kale-



ra jolastera eta Sophie eta Philippe etxean geratu dira zintzo-zintzo agindutakoa betetzen. Azkenean kalera irteten utzi dietenean lagunekin hitz egitera joan da ahal bezain bizkor Sophie.

– Nire aita Saint-Lazare-ra joan da, eta bizirik etorri da– kontatu die emozionaturik Sophie-ren lagunetako batek.

– Ba nire osaba bertan izan da eta ez da bueltatu– erantzun dio triste beste batek.

– Sentitzen dut.

Gaua oso mugitua izan da, inork ez du ondo lo egin. Hiria oso urduri dago, eta hurrengo eguna oso luzea izango delakoan daude guztiak. Hainbat gauza zeuden planeatuta, garrantzitsuenak “Hôtel des Invalides” ospitale militarra eta “La Bastilla” gotorlekua hartzea ziren.

Goizean berriro egin dute errietan Sophie-ren gurasoek eta oraingoan dena entzun dute bi anai-arrebek.

– Bastillara joango naiz. Jendea hiltzen ari da herrialde hobe bat lortzeko eta ni ezin naiz bitartean ezer egin gabe geratu, nire lagunak eta herrikideak hiltzen ari diren bitartean.

Barkatu baina ezin dut.

– Mesedez, eskatzen dizut, ez zaitez joan. Umeengatik– erre-gutu dio Françoisek, nahiz eta jakin alferrik dela.

– Umeengatik ari naiz, beraiantzako etorkizun hobe bat nahi dudalako egiten dut.

Hurrengo minutuak oso tristeak izan dira Blanc-tarrenean. Agur hitzak eta bizirik bueltatzeko promesak besterik ez dira entzuten.

Aita etxetik joan denetik orduak amaigabeak izan dira. Azkenean, norbaitek atea jo du

gaueko 9ak aldera. Ama atea irekitzera joan da umeei itzaroteko eskatuz. Atea ireki duenean bizilagun bat ikusi du. Gizona oso zikin zegoen, gerratik itzuli berria zirudien, horrela izango zen seguruenik. Gizonak aurpegi triste zuten eta Françoisek okerrenea pentsatu zuen.

– Andre hil egin da, ezta?

– Sentitzen dut– erantzun zion goibel-. Egunen batean laguntza behar baduzu umeekin deitu lasai.

Umeek dena entzun dute eta negarrez hasi dira momentuan elkarri besarkatuz. Amak atea itxi duenean beraiengana hurbildu da eta negarrari ekin dio berak ere. Sophie-k bazekien aita beraiantzat etorkizun hobe baten borrokan hil dela eta zin egin dio bere buruari berak ere horregatik borrokatuko duela, aitaren omenez.

Eguneko gauza onena bi helburuak bete direla izan da, bi eraikinak herriarenak dira.

Gauzak ondo doaz Blanc-tarren etxean. Amak lana topatu du merkatuan, egunero joaten da lanera eta diru pixka bat irabazten du.

Abuztuaren 26ean gaude, egun handia da. Batzar Nazionalak Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena onartu du. Haren lehen artikulua ezartzen du gizonak eskubide berdinetan jaio eta bizi direla. Frantzia osoak ospatu duen zerbait izan da, izugarriko aurrerapausoa baita. Herria umore onez dago, aspaldiko partez eta beste garaipen bat gehitu dio geroz eta luzeagoa den zerrendari.

Gauzek lasai jarraitu dute, urriaren 5erarte. Pariseko merkatuan lan egiten duten emaku-

meez zuzendutako manifestazioan izugarriko jendetza bildu da, ogia eta erreformak exijitzen. Blanc-tarrak bertan daude eta Sophie oso animatuta dago. Bera da protesta gehien egiten duena, bere hitza betetzeko asmoarekin, aita omentzeko asmoz. 6 ordu geroago Versaillesera iritsi dira eta azkenean Luisek janaria bidaltzea lortu dute. Egun luzea izan da baina merezi izan du.

Hainbat urte pasa dira. Frantziako egoerak hobera egin du, baina oraindik tentsioa dago.

Gaur 1793ko urtarrilaren 21ean Luis XVI.a exekutatu dute gillotinarekin. Frantzia errepublika bat da iada baina oraindik gauza batzuk egin behar dira, Luis XVI.a exekutatzea, adibidez. Exekuzioa publikoa izan da, Iraultza Plazan. Plaza jendez bete dago eta plazaren erdian plataforma bat. Plataforman, Luis XVI.a hilko duen tresna eta ondoan tresna aktibatuko duen borrhora, beltzez jantzita noski. Jendetzaren artean Blanc familia dago. Luis plataformaraino eramateko bidea amaigabea iruditu zaie ikusleei. Eta Frantziako azken monarka izandakoaren burua xextora erori denean plaza osoak txalo zaparrada batekin ospatu du.

Sophie-ren iritzitan nazkagarria izan da, baina beharrezkoa. 13 urte besterik ez ditu baina bizi duen guztiak helduagoa egin du. Gaur, duela ia 4 urte, aita hil zitzaionean, bere buruari egin zion promesa hura betetzat eman du.

Beste aro bat hasi da, aro hobe bat.

Egilea: Añes Santamaria Santos (3. DBH)



«Geure eguna»

2007ko otsailaren 18a zen. Goizeko seietarako jadanik itsasoratu ginen, helburu bakar batekin: Evergreen konpainiako itsasontzia lapurtzea.

Nire hiru anaiak eta ni, erri-fleak harturik, prest geunden aurrera jarraitzeko. Urteak egon ginen momentu honetarako prestatzen, hori zen gure aukera bakarra.

Jaio nintzenetik nire gurasoek itsasorako prestatu ninduten. Somalia krisi ekonomiko baten barne zegoen, eta sei pertsonako familia izanda, esan genezake egoera txarrean geundela. Ez zegoen ez diru, ez janaririk etxean, ondorioz, aita eta ama beti joaten ziren itsasontziak lapurtzera.

Ni ume alai eta bizia nintzen, beti jolasean nenbilen etxetik, nire munduan, gurasoek bizi behar izan zutenaz ohartu gabe. Nire anaiei dagokienez,

oso bihurriak ziren, zaharrena batez ere, Malik izenekoa. Malik "gaizkilea" zen, maltzurra batzuetan; beti liskar bila zebilen, norbait zirikatzeak asmoz. Beste bi anaiak, Mohhamed eta Ahmed, bixkiak ziren, halere, ez zuten elkarren antzarik.

Biak bihurriak ziren, bai, baina Mohhamed oso isila zen, Ahmed munduko pertsona hitunena zen bitartean. Herri oso xume batean jaio ginen, Somali, baina egoera txarrean bizi arren, gure haurtzaroak nahiko alaiak izan ziren.

Lehen aipatu dudak bezala, gurasoek itsasorako prestatu gintuzten, hau da, piratak izateko. Prestakuntza hau hondartzan egiten genuen. Bertan, igeri

egiten, armak erabiltzen, mehatxatzen, itsasontzia martxan jartzen... ikasi genuen, helduak bilakatzerakoan, lapurretan hasteko.

Urteak igaro genituen horrelaxe, zehazki, nire hemezortzigarren urtebetetze eguna iritsi zen arte: 2007ko otsailaren 18a, Evergreen konpainiako itsasontzi lapurtzeko eguna, nire anaia Malik-en hitzetan: "Geure eguna".

Jada itsasoan geundela, hiru gazteenak eztabaidan hasi ginen: "hau ideia txarra da...", "beldurtuta zaudela esan nahi duzu?", "isildu zaitez!"... Azkenean, Malik-ek lasaitzeko esan zuen. Berari kasu egiteko esan zigun aitak, eta horixe egin genuen. Malik izan arren lasai egoteko esan zuena, bera zen urdurien zegoena egun hartan, edozer gaizki irteten bazen, bere errua izango zen.

Lau ordu eman genituen itsasoan, merkantzia itsasontzirik topatu gabe.

Azkenean, goizeko hamarretan, urrunera begiratu zuen

Ahmed-ek bere katalajuekin, eta ozen oihukatu zuen: "Evergreen!!!". Nire anaien aurpegietan distira bat sumatu nuen orduan, poz-pezik zeuden Ahmed-ek egindako aurkikuntzaz. Bidaiaaren hasierako kezka ahaztuta, aurrera jarraitzea izan zen beraien pentsamendu bakarra; eta horixe egin genuen.

Pixkanaka pixkanaka gerturaten gindoazen, "EVERGREEN" letrak geroz eta handiagoak ziruditen, geroz eta distiratsua goak. Behin itsasontzitik hogei eta hamar metrotara geundela, tiroka hasi ginen, itsasontziko kapitainari eman nahian. Ez genuen gure helburua lortu; ondorioz, bigarren planari ekin genion:

itsasontzira igotzea. Bigarren plan hau egiteko, gehiago gerturatu behar ginen.

Ez genuen praktika handirik horrelako maniobreakin, baina hau zen gure aukera bakarra.

Azkenean, bizpahiru minutu geroago, Malik-ek itsasontziko esku-eskailerara gerturatzea lor-

tu zuen. Bera izan zen lehena igotzen, bi bixkiez jarraiturik. Ni ordea, ez nintzen igo, txalupa bere lekuan mantentzeaz arduratu behar nintzen.

Hamar minutu geroago, betirako gogoratuko ditudan soinua entzun nituen: hiru tiro, baina ez ziren gure errifleetatik jaurtitakoak. Nire anaiak kubiartan zerraldo: ez nituen berriro ikusiko. Tiroak entzun eta gero nire bila etorriko zirela pentsatu nuen, baina ez zen horrela izan, eta alde egitea lortu nuen.

Berrogei urte igaro dira geroztik. Gertatutakoa eta gero, emigratzea lortu nuen, eta ondorioz, Euskal Herrira iritsi nintzen. Orain baserri batean bizi naiz, hirietatik urrun. Nire bizi-tza inoiz baino hobea da, halere, ezin dut burutik kendu 2007an gertatutakoa. Ezin dut egun hori ahaztu; nire anaien falta sumatzen dut, nire anai maiteena.

*Egilea:
Unai Muñoz Zabaleta*

Olatuak eramandakoa ez zen itzuli

Gau hura lo egin ezinik pasatu nuen, nire logela ilunpean zegoen gauero bezala, eta pertsianen zirrikituetatik kaleko argia sartzen zen.

Kaleko jendea entzuten nuen, batzuk barrez ari ziren bitartean, ume txiki baten negarrak entzuten ziren, eta batzuen xuxurlak entzuten ziren bitartean, beste batzuen errietak entzuten ziren. Hala ere, niri ez zidan interesik pizten kaleko soinu zaratsatu horrek. Nire pentsamendu sakonean murgildua nengoen, bihar goizean goiz abiatuko ginen aitaren herrira. Herri txikia zen arren, hondartza zoragarria zuen, eta bertan izugarri maite nuen jendea zegoen. Nire aitona eta amona dibertigarri eta nire osaba jakintsuaz gain, nire lehengusuak zeuden bertan.

Urtean behin besterik ez nuen aukera edukitzen beraiekin elkartzeko. Goizean-goiz esnatu nintzen, begiak ireki nituenean nire gela ikusi nuen, goiz eguzkitsua zen eta eguzki izpiek nire ohe ondoan zegoen aulki beltza seinalatzen zuten. Iskina batetara begiratu eta txikia nintzenetik nire gelan egon den armairu zuria ikusi nuen; oraingoan erabat hutsa zegoen, arropa koloretsu guztiak ondoan zegoen maleta arrosaren barnean baitzeuden. Esnatu bezain azkar autorantz abiatu nintzen, bertan aita zegoen nire zain, kamiseta koloretsu batekin eta bere hortz txikiek osatutako irrifar erraldoi batekin. Ea prest nengoen galdetu zidan, eta segidan parean nuen auto gris hartan sartu nintzen. Bidaia isila izan zen arren, musikak alaitu zuen unea. Ordubeteko bidaia ondoren iritsi ginen gure helmugara. Autoko ate pisutsu eta zikin hura ireki orduko aitaren herria ikusi nuen. Ez zen batera aldatu azkeneko aldiz etorri ginenetik, bertan zegoen hondar bigun hori zuen hondartza, olatuak sortzen zituen itsaso urdin eta amaigabe batez inguratua. Etxe txiki horiek ere bertan zeuden, eta betidanik ezagutzen nuen jendea ikusten nuen leihoetatik. Zuhaitzak izugarri hazi ziren eta lore gorritz josiak zeuden. Bat-batean pausak entzun nituen, pausu eza-gunak ziren horiek, bira eman eta bertan ikusi nituen Markel

eta Nora. Markel izugarri hazi zen azkeneko hilabeteetan eta begiak inoiz baino urdinagoak zituen. Bere ilea beti bezain beltza zuen, kizkur kiribilez bete. Norak, berriz, ez zuen galdu bere irribarre zoragarria eta ilea inoiz baino luzeagoa zuen. Elkar besarkatu ginen, eta zuzenean beraiekin joan nintzen. Alde batetik pena sentitu nuen geroz eta urrunago ikusten nuen aita barkarik utzi nuelako, baina banekien laster elkartuko zela osabarekin. Beraien etxolara sartu ginen hirurok. Egurrez egin zegoen eta barruan gorri koloreko sofa bat edukitzeaz gain, liburu zositako apal bat zegoen. Beraien etxola txikian pasa genuen eguna, eta bertan lo egitea erabaki genuen. Ez genuen uste gauak horrelako hotza ekarriko zenuen, eta gau erdian hondarrez beteak zeuden toailak hartuz, etxera joan behar izan genuen. Barruan sartu ginenean sekulako isiltasuna sumatu nuen, osabaren zurrungak besterik ez ziren entzuten. Norak eta biok ahoa tapatu behar izan genion Markeli barrez ez hasteko.

Hirurok izara zuriak zituen ohe erraldoi batean egin genuen lo. Gau hartan aurrekoan baina lo gutxiago egin nuen, Markelek egiten zituen soinu zaratsatu eta arraroak zirela eta. Hurrengo goizean esnatu eta gosaldutik bezain laster hondartzarantz abiatu ginen. Ni deseroso sentitzen nintzen bainu jantzi arrosa horrekin, oso txikia bainuen, hala ere barre egin nuen ikusteko baina Nora nire egoera berean aurkitzen zela. Aldiz, Markelek oso handia zuen hori koloreko bainujantzi hura. Uste dut hirurak batera konturatu ginela eguraldia okertzen ari zela. Laino grisak ari ziren ziren agertzen eguzkiaren disdira politak atzean utziz, eta itsasoko olatuak aztoratzen hasi ziren. Atzera egiteko proposamena egin genuen, baina, hala ere, Markelek bainutxo izoztu bat hartu nahi zuen. Horregatik kamiseta berdea eta txankleta estuak hondar lehorraren gainean utzi eta iada grisa zen itsaso hartan



sartu zen. Kasu egiten zigun bere beso beltzarana astinduz, eta guk sekulako barreak bota genituen hura ikusita. Baina bat-batean sekulako olatuak Markel eramanean zuten, momentu horietan ikusi nuen Noraren beldur aurpegia, zuri-zuri jarrri zen Markel agertzen ez zela ikusita. Osaba eta aitari abisatzaera joan ginen. Osabak bere loredun alkandora kendu eta uretan sartu zen. Ordu erdi beranduago ikusi genuen bueltan zela. Ez zuen bere seme bakarra aurkitu. Aitak bere mugikor pisutsu eta zaharra esku artean zuela, herritar guztiei abisatu zien gertatutakoaz. Naiararen begietan malko garden bat ikusi nuen, eta malko hori bere anaia galdu zen itsaso hartara ero-

ri zitzaion. Egun eta gau osoa pasa zuten herritarrek itsaso ilun hartan murgilduta, baina ez zuten inoiz aurkitu. Tristurak hilko ninduen momentu hartan. Hurrengo goizean Nora ez zen etxetik atera; nik, ordea, azkeneko aldiz zapaldu nahi nuen hondar bigun hori. Itsaso ertzean zegoen arroka zakartsu eta gogor hartan eseri nintzen, nire soineko loredunak ur gris eta gazi hura zeharkatzen zuten bitartean. Nire malko gardenak itsasoko ur tristea gehiago aztoratzen zuela sentitu nuen. Markel eramanean zuten olatu beldurgarri horrek bainu jantzi hori eta handi bat hurbildu zuen, ezaguna egiten zitzaidan bainu jantzi bat, inoiz ahaztuko ez nuen bainu jantzi bat.

*Egilea:
Irene Landazuri Peñagarikano
(3DBH)*